

Altza

Kontzertua eta pailazoak Auzo Etxe berrian

Altzako Auzo Etxeak ekitaldi ugari antolatu ditu datozen egunetarako, horietako batzuk gazte eta umeei zuzenduak.

Larraitz Garmendia [fnoa.: 943.391.267]

Gazteek datorren larunbatean, hilak 12, kontzertua izango dute Auzo Etxe berrian. Etxea zabaldu zenetik bertan egingo den lehendabiziko kontzertua izango da hauxe. Hiru taldek joko dute: «De Marras», «Jauko Barik» eta «Ill». Hainbat musika mota jorratzen dituzte hiru talde hauek eta alzataz geroz osatuak dira. Kontzertua 21.00etan hasiko da eta sarre- ra dohainik izango dugu.

Haurrek ere izango dute zeregina datorren astean auzo etxean. Hilaren 18an, arratsaldeko 18.00etan, Takolo, Pirritx eta Porrotx

pailazoek haien azken lana, «Baserrian» izenekoa, aurkeztuko diete Altzako haurrei. Ekitaldi honetara joan nahi izanez gero, sarrera erosi behar da alde aurretik 400 pezetatan. Sarrerak Casares kultur etxean daude salgai. Esan behar dugu helduek bakarrik ordaindu beharko dutela sarrera, haurrak dohain sartuko dira eta.

Merkatu txikia

Azkenik, datorren larunbatean, azaroak 19, Larratxoko Josu Artetxe plazan merkatu txikia izango dugu. Azoka honetan herritarrek soberan dituzten gauzak saltzeko aukera izango dute.



Auzo Etxea estreinatuko dute gazte eta haur askok hilaren 12an.

Euskaldun berri asko euskaldunen zain daude bere euskera guztiz errotzeko. Euskara ikasle askok ez dute norekin euskaraz hitz egiterik, euskaldunen esku dago hauei laguntza ematea, zure borondatearekin lortuko dute. Oso erraza da, aski da astean ordubete! Euskarak merezi du.

Anima zaitetz!

**Gazteak, helduak, ikasleak, kirolariak...
euskara ikasle asko zain dituzu!!**



**IZAN ZAITEZ
MINTZALAGUNA**

Informazio gehiagorako:
Tfnoa.: 943 43 12 28 Faxa: 943 43 11 90
e-mail: bagera@topagune.jalgi.com



Donostiako
Euskaltzaleen
Elkartea